



Garazi Albizua idazlea, atzo, Donostian. MAIALEN ANDRES / FOKU

Familia zaurietan aztarrika

- Garazi Albizuak idatzitako 'Termita' eleberria euskaratu du Bego Montorio itzultzaileak.
- Modu prekarioan lan egiten duen emakume baten egunerokoa da nobelaren ardatza.

Garbiñe Ubeda

DONOSTIA— Literatur proposamen berritzailea zela; ohikotik aldentzen zela nola egiturari, hala tonuan ere. Eta ahots ausart eta gupidagabe bat zela harena, konbentzioen apurtzailea. Hori ere eta beste batzuk esan zituen epaimahaiak iaz, gaztelaniazko adarrek Euskadi literatura saria *Termita* eleberriri emateko deliberoa hartu zuenean. Garazi Albizua idazle, gidogile eta komikilaria da egilea (Santurtzi, Bizkaia, 1985), eta Bego Montoriok euskaratuta plazaratu berri du lana Erein argitaletxeak.

Honela definitu du nobela Inazio Mujika Iraola editoreak: «Ez da soilik emakume baten istorio bat. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren zauriei buruzko nobela bat da, baina baita bizi-rauteko, maitatzeko eta norbera izateko borrorakir buruzkoa ere».

Albizuak adierazi du liburua idatzi zuenean «oso haserre» zegoela: «Xurgatzen dudana atmosferak sumintzen ninduen, ideologia horrek, zeinaren ara-

bera emakumeen gorputza publiko den. Edonork esan dezake nahi duena gure gorputzaz. Kasik arau bat da emakume bat ikusi eta esatea guapa, argal edo nola dagoen. Zure intimitatean zaudenean, kritika horiek guztiak hor daude, eta jada ez zara zu. Hori tiraka sortu nuen pertsonaia».

Haserre horri tiraka sortu zen *Termita* eleberriko protagonista: amarekin bizi den eta teleoperadore diharduen emakume jada ez hain gaztea. Haren egunerokoa kontatzen du eleberririk, lehen pertsonan. Badira beste bi emakume garrantzitsu istorioan: ama da bat, La Jose, 22 urterekin erditu zena protagonistaz; eta amama bigarrena, 19 urte zituela La Jose mundura ekarri zuena. Protagonistak, berriz, seme-alabarik ez, eta jakintza handia du prekaritateaz eta bazterkeriaz.

Gaiaz harago, protagonistaren baitatik narratzen diren kontuak aletu ditu editoreak: «Oroitzenak, sexu harremanak —gordin—, desirak, beldurrak, familiaren sekretuak, janaren inguruko obsesioa, haren gor-

putz ez-normatiboak duen presentzia». Hori ere ez ezik, amamarenganako lotura «bereziak» ere mintzatu da: «Oso harreman sinesgarria da, maitasunez eta gatazkaz bete. Amama idealizatzen kontrakoak liburukoa, eta harreman horixe dago eleberriren erdigunean». Hori ere guztiak atal laburren bidez azaltzen ditu Albizuak, modu ez-linealean.

Liburua idazteko orduan go-goan izan dituen xedeen artean, honako hau aipatu du egileak: «Familia prekario batean harremanak eta maitasuna nola garrantzitsu diren azaleratu nahi nuen». Disney faktoriak eta Coca-colak zoriona agertzeko baliatutako irudiari dion «gorrotoak» eraman dute idazlea horretara: «Etxeko egongelan, haurrak sutondoan jolasean, aita besaulkian irakurtzen, eta ama labetik atera berri

dituen gailetak eskuetan dituztena. Terriblea da hori. Hori bada zoriona, nire pertsonaia ez du sekula lortuko».

Mujika Iraolarentzat, ahotsa da liburuaren gauzarik nabarmena: «Oso ahots indartsu, ironiko eta berezia da: hasieratik harrapatzen zaitu». Idazkeragatik, berriz, «sentimentalismo» gabea dela esan du: «Ez du biktimizatzen, ez du errukirik bilatzen inola ere». Eleberraren «indargunetzat» jo ditu, halaber, protagonistaren baitan ageri diren ahotsak: «Ahots mitologikoak dira, baina ez dira fantasiakoak. Protagonistaren barruko obsesioak erakusteko baliatzen ditu egileak; haren zaurien metaforak dira».

Garaitsu berean idatzitako beste liburu batekin alderatu du Albizuak *Termita*, hain zuzen *Egunen akabera* gazteentzako eleberriarekin (Erein, 2024). «Baten zirriborroa bukatu eta berehala heldu nion besteari. Ez dut oso gustuko izaten hori, ahotsa eta begirada kutsatzen baitzikio lehenak hurrengoari, baina, oraingo, honetan ez zait axola izan». Liburu hartaz mintzatu da Mujika Iraola ere, eta esan du hartan aurkitutako ahotsaren antzekoa identifikatu duela honetan ere: «Garazi mundu bat eraikitzen ari da, eta ematen du mundu hori oso koherentea dela». ●



«Xurgatzen dudana atmosferak sumintzen ninduen, ideologia horrek. Hori tiraka sortu nuen pertsonaia»

GARAZI ALBIZUA
Idazlea

HITZ GUTXITAN

50 kontzertu Gasteizko Jazzaldian

MUSIKA— Jazz musikak Gasteiz hartuko du berriro ere uztailako hirugarren astean. 49. Jazzaldia egingo dute, eta aurten ere ohiko agertokietatik harago zabalduko dute festibaleko egitaraua. Guztira 50 kontzertu izango dira uztailaren 13tik 18ra bitartean, eta horietatik hamalau bakarrik izango dira ordainpekoak. Gainerakoak kalean, plazaetan, parkeetan, tabernetan eta Arabako hainbat herritan emango dituzte.

Ira Sachs Tabakalera izango da

ZINEMA— Ira Sachs zinema zuzendari estatubatuarra Donostian izango da datorren larunbatean. Hain zuzen, Tabakalera hari buruzko zinema ziklo bat antolatuko du abuztuaren 29ra bitarte, eta zikloko lehenengo filma aurkezteko ardura izango du: *Peter Hujar's Day*. Orotara bederatzita pelikula proiektatu dituzte. Sarretrak jada Tabakalera webgunean daude eskuragarri. Sasoak larunbatero 19:00etan izango dira, zinema aretoan.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus



Museo Bikoitza

Baltzune + P-003687

Usue Arrieta Otaola + Ainara Elgoibar

STM

San Telmo Museoa